


'ALKATE-ZINEGOTZIEN EJENPLUA NAHI DUGU!'

1995. URTEKO UDAL HAUTESKUNDEETAN
HAUTAGAI EUSKALDUNAK BULTZATZEKO
KANPAINA



KANPAINAREN HELBURUA:

Txostenaren azalean aipatu bezala, kanpaina honen helburua datozen Udal Hauteskundeetan hautagaien artean EUSKARAZ DAKITEN AHALIK ETA HAUTAGAI GEHIEN EGOTEA da.

Elgoibarren euskararen normalizazioa lortzeko saiakeran, politikoek aintzindari eta eredu izan behar dutela iruditzen zaigu, eta hau da kanpainaren arrazoi nagusia.

Dudarik ez, kanpaina honek bigarren parte bat ere izan beharko duela: Politikoen EUSKARAREN ERABILERARENA hain zuzen ere. Baina hau politiko euskaldunak baldin badaude bakarrik lortuko da, jakin gabe ezinezkoa izango baita erabiltzea.

KANPAINAREN PLANNING-a:

* ABENDUA:

- . Alderdi politikoei kanpainaren berri zehatz-mehatz eman eta euren iritzia jaso.
- . Alderdiek zerrendak prestatuak dauzkaten beste batzar bat egingo dugu zerrenden azterketa eta balorazioa egiteko.

* URTARRILAK 6:

- . Kanpainako lehen abisua. (Ikus eranskina)

* URTARRILAK 12:

- . Kanpainaren aurkezpena. (Ikus eranskina)

* URTARRILA, OTSAILA, MARTXOA eta APIRILA:

- . BARRENeen publizitatea. (Ikus eranskina)

* HAUTESKUNDE AURRETIK:

- . Hautagaien kuadroa. (Ikus eranskina)

* HAUTESKUNDE ONDOREN:

- . Alkate-zinegotzien kuadroa.
- . Propagandaren balorazioa.

ABENDUAK 23, LEHENENGO ABISUA:

. BARRENen orri osoa:

1.995eko maiatzean

**ALKATE-ZINEGOTZIEN EJENPLUA
NAHI DUGU!**

URTARRILAK 12: KANPAINAREN AURKEZPENA

Kultur Etxean:

- . Elkarteko lehendakaria.
- . Alderdi politiko bakoitzeko ordezkari bat.

Helburua: kanpainaren helburuak eta xehetasunak komunikabideei jakinaraztea eta hauek ahalik eta oihartzun gehien ematea herritarrek kanpainaren berri izan dezaten.

URTARRILA, OTSAILA, MARTXOA eta APIRILA:

BARRENen publizitatea. Orri osoa.

‘ALKATE-ZINEGOTZIEN EJENPLUA NAHI DUGU!’

1995eko maiatzean UDAL HAUTESKUNDEAK direla kontutan izanda

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartek

ZERA ADIERAZTEN DU:

- . Elgoibarko herria, % 70a euskalduna edo ia-euskalduna izanik, ahalegin serioa egiten ari dela laster batean herri euskalduna izateko.
- . Ahalegin honetan administrazioak eta politikoeak aintzindari eta eredu izan behar dutela, datozen lau urteotan alkate eta zinegotziek euren funtzioak, batez ere, euskaraz beteaz.

Horregatik ELGOIBARKO ALDERDI POLITIKOEI

ZERA ESKATZEN DIZUEGU:

- . Alderdi bakoitzeko zerrendaburua edo alkategaia bere eginbeharrak euskaraz burutzeko gauza izatea.

. 90-94 legealdian izan duzuen zinegotzi kopurua kontutan izanik:

. EAJ-PNVri, lehenengo zortzi hautagaiek euskaraz jakitea.

. HBri, lehenengo laurek euskaraz jakitea.

. EAri, lehenengo biek euskaraz jakitea.

. PSE-EEri, lehenengo biek euskaraz jakitea.

. Beste alderdiren bat aurkeztuko balitz, hautagaien zerrendan euskaraz dakiten ahalik eta hautagai gehien egotea.

. Udal Batzordeetako lehendakariak euren betebeharrak euskaraz egiteko gauza izatea.

. Hauteskundeetako kanpainan, euskaldunok Elgoibarren garen portzentaia aintzakotzat hartuz, euskarari lehentasuna ematea.

Eskaera hauek, Herriaren onerako, kontutan hartu eta beteko dituzuelakoan,

ELGOIBARKO IZARRA

Kultur Elkartea

HAUTESKUNDE AURRETIK:

* HAUTAGAIEN KUADROA:

HAUTAGAIAK		ULERTU	HITZEGIN

0. Ezer 1. Zerbit 2. Ondo

HAUTESKUNDE ONDOREN:

* ALKATE-ZINEGOTZIEN KUADROA:

ALKATE ETA ZINEGOTZIAK		ULERTU	HITZEGIN

0. Ezer 1. Zerbait 2. Ondo

* HAUTESKUNDE PROPAGANDAREN BALORAZIOA:

KARTELAK	ESKU PROPAGAND.	MEGAFONIA	MITINAK/HITZAL.
EUSK: BIET: GAZT:			